

## SAÑU BIZIRIK MOZIOA

2022 irailean, Statkraft enpresa norvegiarrak Zestoa, Azpeitia eta Errezil udalerrien arteko lurretan Piaspe zentral eolikoak eraikitzeke asmoa zuela jakin genuen azpeitiarrok. Gainera, 2021eko azaroan Capital Energy enpresak Buruzai zentrala eraikitzeke asmoak azaldu zituen, zeinen zati bat Azpeitiko lurretan erakiko den. Bi horiek ez dira proiektu isolatu bat, eta Gipuzkoa osoan zehar ugariak dira zentral eoliko berriak eraikitzeke eskaerak. Egoera honen aurrean, inguruko natur baliabideak zein biztanleen ongizatea nabarmen kaltetzen duten zentralen aurkako hainbat mozio onartu dira Gipuzkoa osoko udal ezberdinetan:

- 2022ko martxoaren 2an Soraluzeko Udalbatzak Mendigainean eolikorik ez! izenburupeko mozioa aho batez onartu zuen, bere lurretan Capital Energy enpresak garatu nahi duen Karakate proiektuaren aurka. Gainera, jakinarazi zuen alegazioak aurkezteke asmo sendoa zuela.
- 2022ko maiatzaren 25ean Elgoibarko Udalbatzak onartu zuen goian aipatutako proiektuaren aurkako mozioa.
- 2022ko maiatzaren 26an Urretxuko Udalbatza izan zen Capital Energy enpresaren Buruzai eta Trekutz proiektuen aurkako mozioa onartu zuena. Gainera, udalak adierazi zuen eskura dituen legezko baliabide guztiak erabiliko zituela bi proiektu horien aurka. Are gehiago, Antzuola, Azkoitia, Zumarraga, Ezkio-Itsaso eta Azpeitiko udalei bi proiektuen aurkako lan tekniko guztia batera egitea proposatuko ziela jakinarazi zuen.
- 2022ko ekainaren 1ean Antzuolako Udalbatzak Trekutz proiektuaren aurkako mozioa onartu zuen.
- 2022ko ekainaren 22an Zumarragako Udalbatzak Capital Energy enpresaren Buruzai proiektuaren aurkako mozioa onartu zuen. Udal honek ere, Urretxuko Udalak bezala, kaltetutako gainontzeko udalei zentralaren aurkako lan teknikoak elkarrekin egitea proposatuko ziela adierazi zuen.

Hego Euskal Herrian eta, konkretuki, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dugun testuingurua ikusirik, garrantzizkoa deritzogu udal ezberdinen partetik horrelako proiektu suntsitzaileen aurkako jarrera esplizitu bat publiko egitea eta, hortaz, Sañu Bizirik! taldeak mozio hau idatzi du, hemen onartu dadin, honako hau oinarri hartuta:

## ARRAZOIEN AZALPENA

Aldaketa klimatikoaren eta erregai fosilen agortzearen testuinguruan, energia iturri berriztagarriek izugarrizko garrantzia hartu dute. Egoera honetan, berebizikoa deritzogu gaiaren azterketa zabal eta sakon bat egitea. Izan ere, energia berde gisa saltzen zaizkigun energia berriztagarriek (horien artean eolikoak) kalte ekologiko eta sozial latzak sor ditzakete.

Zentral eolikoek natur ingurunean eragiten dituzten kalteen artean, azpimarratzekoak dira hegazti eta kiroptero populazioengan duten eragina eta zentral eolikoek eraikuntza prozesuan ematen den habitaten galera, lur-mugimenduak eta lurzorua higaduraren handiagotzea. Guzti hori gutxi balitz, zentral eolikoak eraikitzen diren lurraldeetako biztanleengan ere kalteak begi-bistakoak dira. Batetik, inpaktu

paisajistakoa eta sortzen duten zarata ditugu, auzokideen ongizatea zein gainontzeko herritarren aisialdiaren kalitatea murrizten dutenak. Horren adibide garbia da, Sañun eraiki nahi den Piaspe proiektua zeinak nabarmen kaltetuko lukeen lur horietan bizi den komunitatearen bizi-kalitatea. Aipatu behar da Sañun abeltzaintzatik eta nekazaritzatik bizi diren hainbat baserri daudela, eta dimentsio horietako obra batek beraien lan- eta bizi-iturriak seriooki kaltetuko lituzkeela. Azpimarratzekoa da, honelako proiektuek gehien eragingo lituzkeen auzotarren onespenerik ez dutela eskualdeko proiektuek.

Bestalde, azken egunotan Gipuzkoa osoan aurkeztu diren zentral eolikoetarako proiektuen eskaera ezberdinek ez dute gainera datorkigun krisialdi energetiko eta klimatikoari irtenbidea ematea helburu. Orain arteko produkzio eta kontsumo eredu berberari jarraikortasuna emateko eta arazoa zenbait urtez atzeratzeko besterik ez lukete balioko, kasurik onenean. Energia berriztagarrien zentral berriak eredu ekonomiko berberaren barruan kokatuz ez da energia fosilak ordezkatzetik lortuko. Beraz, energia-iturrien dibertsifikaziorako eta merkatu-aukera berriak ustiatzeko estrategia soil baten aurrean gaude.

Proiektu eoliko handien onuretako bat elektrizitatearen prezioaren murriztea dela esan zaigu behin eta berriz. Jakin badakigu ordea, horrelako proiektuen ezarpenaren bitartez argindarraren prezioaren gaineko kontrol handiagoa izatea, eta, hortaz, prezioen merketzearen justifikazioa faltsua dela. Ezin esan dezakegu berriztagarrien produkzioaren eta argindarraren prezioaren artean harreman zuzenik dagoenik; nahiz eta Statkraft-ek, Capital Energyk eta berriztagarrien munduan negozioa egin nahi duen orok, kontrakoa saldu.

Bestalde, Statkraft enpresa norvegiarrak Sañun egin nahi duen proiektuaren ezaugarri bereizgarria prozedura formal demokratikoa omen da, energiaren produkzioaren parte-hartze irekia proposatzen baitu (kapital nahikoa dutenentzat irekia, alegia). Ezein prozedura demokratikoak ez luke onartu behar baserritarren lurren espropiazioaren pean soilik egin daitekeen proiekturik. Hortaz, baserritarren oniritzirik gabe beraien lurra kentzeak, gainera beraien bizi-ingurunea nabarmen kaltetuko duen proiektu bat egiteko, ez du demokratikotik ezer.

Aipatzekoa da, bestalde, aldaketa klimatikoaz horren kezkatuta gauden egun hauetan, produktu, ekintza eta energiaren jasangarritasuna edo izaera ekologikoa CO2 isurietan neurtzen dugula soilik. Halere, ezin ditugu ahaztu gainera datorkigun aldaketa globalaren baitan, aldaketa klimatikoarekin batera pairatzea tokatuko zaizkigun gainontzeko prozesu globalak ere. Horien artean biodibertsitatearen krisia, lurreko seigarren desagertze masiboan bete-betean sarturik baikaude. Krisialdi klimatikoari irtendibe errealik emango ez dion prozesu suntsitzaille baten aurrean gaude, beste krisialdi globalak areagotu ditzakeena gainera. Testuinguru honetan, ezin uler liteke: batetik, Lurralde Plan Sektorial berria EAE mailako energia-kontsumoaren eta hura murriztearen inguruko lanketa sakon bat egin aurretik diseinatzea; eta bestetik, Plan Sektorial berria onartu aurretik aurkeztutako proiektu eolikoaren prozedura administratiboak aurrera jarraitzea.

Bada, Sañu bizirik! taldearen ustez ez dago nahikoa justifikazio, ez alor politikoan ez energia-beharren arloan eta ezta ere alor etikoan horrelako proiektu bati ateak irekitzeko. Hortaz, honako puntu hauek onartzea eskatzen zaio Azpeitiko Udaltzari:

1. Azpeitiko Udalaren eta bertan ordezkaturik dauden alderdi politikoen esanetan "Piaspe eta Buruzai proiektuak ez dira bidezkoak bertako ingurunean kalte nabarmenak eragingo dituelako, bai auzotarrengan baita ingurune naturalean ere".
2. Azpeitiko Udalak eskura dituen legezko baliabide guztiak erabiliko ditu Piaspe eta Buruzai proiektuak gauzatzeko; bertako natura-, kultura-, ekonomia-, aisialdi-, biologia- eta geologia-ondarea babesteko asmoz.
3. Azpeitiko Udalak proiektuaren eraginpeko herriei (Zestoa, Errezil, Azkoitia, Zumarraga, Urretxu eta Ezkio-Itsaso) elkarrekin lan egitea proposatuko die; Piaspe eta Buruzai proiektuak gelditzeko beharrezkoa den lan tekniko guztia elkarrekin egiteko borondatea eta prestutasuna baitu.
4. Azpeitiko Udalaren Osoko Bilkurak EAEko Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz ditzala zentral eoliko handien instalazioari lizentziak emateko izapideak eta baimenak, harik eta EAEn egun dugun erronka energetikoari benetan helduko dion plan integral bat garatu arte. Horretarako, eskatzen du:
  - Energia berriztagarrien planifikazioa, alegia, PTS berria onartu aurretik aurkeztutako zentral eolikoaren tramitazioak gelditzea.
  - Lurralde Plan Sektorialari moratoria ezartzea naturaren kontserbazioaren alde lanean ari diren elkarte eta profesionalen iritzia berriaz jasotzeko prozedura diseinatu arte.
  - EAE mailako energia kontsumoaren eta hura murriztearen inguruko plan oso eta definitu bat diseinatzea; eta hura ardatz hartuta diseinatzea Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorial berria. Horrela, gaurtik hasita, Azpeitiko Udalak Sañun eta Oletan egin nahi diren Piaspe eta Buruzai proiektuen kontrako jarrera irmoa hartuko du, mozio honetan adierazten den moduan.